Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18:10 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2025eko abenduaren 9ko 17:00etan, Udala bildu zen ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Eder Martínez de Miguel, José Irigaray Gil, Andrea Juandeaburre Serna eta Ana Azanza Burusco zinegotziak, bilkura buru alkatea, Una Irigaray Osés izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2025eko UZTAILAREN 23ko, ABUZTUAREN 29ko, URRIAREN 7ko ETA AZAROAREN 11ko BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko uztailaren 23ko, abuztuaren 29ko, urriaren 7ko eta azaroaren 11ko bilkuretako aktak onartzea.

2. 2025eko URRIAREN 4tik ABENDUAREN 5a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Irigaray Osés alkateak 205eko urriaren 4tik abenduaren 5era eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- 2026ko ZERGA TASAK ONARTZEA

Irigaray Osés alkate jaunak hitza hartu du eta 2026. urterako indarrean dauden tasa berak mantentzea proposatu du, honako hauek izan ezik: lurralde-kontribuzioa, karga-tasaren % 0,02ko igoera aplikatuta % 0,27raino igotzea, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga % 0,5 igotzea, % 3,5era pasatuz, eta 10 euroko igoera etxeko egurraren lotearen tasan. Udalbatza ados dago Irigaray Osés alkateak egin duen proposamenarekin eta 2026ko presio fiskala onartu du. Hona hemen:

1. Ehuneko 0,27ko karga-tasa jartzea hiri-lurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko (landa eta hiri kontribuzioa)
2. Ehuneko 3,5eko karga-tasa jartzea eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko. (Gutxieneko tarifa 30,00 €).
3. Ekonomia-jardueren gaineko zerga: aurtan, 1.000.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten subjektu pasiboek ez dute zerga hori ordaindu beharko. Behartutako subjektuak: 1,4 aplikatzea.
4. Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehieneko portzentajeak aplikatzea eta karga-tasa %8,5ekoa izatea.



5. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Gobernuak ezarritako tarifak.
6. Etxeko egur-lote bakoitzeko 40,00 euroko tasa jartzea.
7. Udaleko gainerako zerga-ordainarazpenei KPIa ez aplikatzea
Erabaki honek 2026ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

4. HERRI-LURRETAKO ORDENANTZAREN ALDAKETA HASIERA BATEAN ONESTEA

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du, gobernu taldean 16, 38 eta 70. artikulua aldatu beharra eta Herri-lurretako Ordenantzaren 30. artikulua atzean 30 bis artikulua gehitzeko beharra aztertu ondoren, bidezko dela Herri-lurretako Ordenantza proposatutako aldaketak hasiera batean onestea.

Horiek eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da hasiera batean onestea Udal honen Herri-lurretako Ordenantzaren aldaketa hauek, eta NAOn argitaratu eta jendaurrean jartzea, hilabetez.

16. ARTIKULUA.

c). Auritzen bizitzea, modu eraginkorren eta jarraituan, urtean bederatzi hilabetez gutxienez, hamabi hilabetez jartzea.

Testu berria:

c) Auritzen bizitzea, modu eraginkorren eta jarraituan, urtean hamabi hilabetez gutxienez.

30. artikulua ondoan 30 bis artikulua gehitzea, horrela:


Onuradunen betebeharra izanen da Herri-lurretako lurzatiak mantentzea, eta haiek egoera onean mantendu beharko dituzte, sasirik eta abarrik ager ez dadin. Onuradunen betebeharra izanen da hertsia mantentzea. Aurizko Udalak mantentze lan horien jarraipena egingen du eta onuradunei herri-lurrak ongi mantentzeko behar diren ekintzak eskatzeko ahalmena izanen du.

38. ARTIKULUA.

Azienda Udalak erabakitzen duen egunean markatuko da. Urtean markatze data bat baizik ez da izanen, Udalak besterik erabaki ezean.

Testu berria:

Azienda Udalak erabakitzen duen egunean markatuko da. Urtean markatze data bat baizik ez da izanen, Udalak besterik erabaki ezean. Aziendak ezarritako egunean markatzen ez badira, Udalak %20ko errekarua ezartzen ahalko dio markatzen den buru bakoitzari.



39 c) 3. ARTIKULUA. H letra gehituko zaio:

39 c) 3 artikuluarik H letra gehituko zaio, honako testuarekin:

Onuradunen betebeharra izanen da mugen itxierak mantentzea, eta lan horretarako deitzen diren auzolanetan parte hartu beharko dute.

70. ARTIKULUA.

Honakoak arau-hauste administratiboak izango dira:

f) Animalia hilak lurperatu gabe uztea.

Testu berria:

f) Hildako animaliak lurperatu gabe uztea putreak eta gainerako animaliak sar ezin daitezkeen eremuetan, bai eta erreketatik hurbil ere. Hildako animalien hondakinak animaliek jan ondoren kendu beharko dira. Abeltzain bakoitzak bere gain hartu beharko du hildako animalien ardura, eta debekatuta dago animalia horiek herri-lurretan uztea.

5. 2026ko LAN EGUTEGIA ETA TOKIKO FESTA

Udalbatzak erabaki du aho batez alkateak proposatu duen herriko festen egutegia, herriko gazteekin alde aurretik adostua, onartzea. Hona hemen:

Inauteriak: urtarrilaren 31:

Udaberriko edo Gurutze Santuko Feria: Maiatzaren 3a.

San Juan bestak: Ekainaren 23a, 24a, 25a, 26a eta 27a.

Eskulangintza Azoka: Abuztuak 15

Larrazkeneko feria: Irailaren 20a

Herriko festa (Bariko San Nikolas): Abenduaren 7a.

6. FRONTOIKO ARGITERIAREN MEMORIA ONARTZEA-PSTD


Irigaray Osés alkateak jakinarazi duenez, Pirinioetarako Turismo Iraunkortasuneko Planean beste aurrekontu-partida batzuk libre geratu direnez, "Hitzarmenean" "Aurizko pilotalekuko argiteria berritzea" izeneko jarduera sartzea erabaki da, 21.737,67 euroko aurrekontuarekin. Udal honi dagokio jarduera hori kudeatzea eta gauzatzea, eta, beraz, ekintza hori gauzatzeko erakunde onuraduna eta arduraduna da.

Kontuan hartuta zenbateko hori eta Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluarik jarraikiz (Munta txikiko kontratuarentako araubide berezia), obra hori Belzunce Lerindegui Alejandro-Villalva Moreno Aitziber enpresari esleitzea proposatzen du (IFK: E71464515)

Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- "Aurizko pilotalekuko argiteria berritzeko" lanak Belzunce Lerindegui Alejandro - Villalva Moreno Aitziberri (IFK: E71464515) esleitzea, 21.737,67 €-an (BEZa barne)

2.- Kontratua sinatu aurretik, esleipen prezioaren %4ko (hau da, 718,60 €) fidantza eta ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira, jakinarazpen hau jaso eta bost eguneko epean:



Lizitatzaillearen adierazpena, non adieraziko baitu, bere erantzukizunpean, ez dagoela Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 30. artikuluan aipatzen diren kontratatzeke debekuetako ezein kausatan.

b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren alta eta, hala badagokio, azken ordainagiria.

c) Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria eta, gainera, administrazio publikoetako organo eskudunena, lizitatzailleak haien gaineko zerga betebeharrak baldin baditu, haiek eguneratuak dituela frogatzeko agiriak, proposamenak aurkezteko epea bukatu baino sei hilabete lehenagotik, gehienez ere.

d) Gizarte Segurantzak luzatutako ziurtagiria, indarrean dauden xedapenek Gizarte Segurantzari ezarritako betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duena, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei hilabete lehenago luzatutakoa.

e) Gutxienez 100.000 euroko estaldura duen erantzukizun zibileko aseguru baten polizaren indarreko ordainagiria eta erreziboa; berariaz adierazi behar da oinarritzko erantzukizun zibilaren, ustiapenaren, higiezinaren, subsidiarioaren eta ondorengo lanen estaldura, gutxienez obra gauzatzeko behar den denbora barne hartzen duena.

7. KULTUR ETXEKO PROIEKTUAREN ERANSKINA ONARTZEA PSTD

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, Kultur Etxeko obretatik geratu den soberakinarekin eta Cedernaren oniritziarekin, Kultur Etxerako hasieran emandako inguratzailea eta baldintza klimatikoak hobetzen jarraitzeko obrak egitea proposatu duela. Obra horien eranskina Echeverri obra-zuzendariak egin du, eta kostua 37.579,00 €-koa da, gehi 2.289,68 €-ko memoria eta obra-zuzendaritza, BEZa barne. Lanek 2026ko martxoaren 31 baino lehen amaituta egon behar dute.

Hori ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du Eduardo Echeverrik aurkeztutako memoria onartzea eta, arkitektoaren txostenaren arabera, Construcciones A. Bengotxeari 37.579,00 euroko (BEZa barne) zuzeneko esleipena egin ahal izango zaion obra esleitzea, edo, hala badagokio, hiru enpresari gonbidapenak egitea, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean araututakoaren arabera.

8. XXXXXXXXXXK 2025EKO IRAILAREN 25EAN DATU PERTSONALEI BURUZ EGINDAKO ESKAERAREN ERANTZUNA

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza, eta xxxxxxxxxk 2025eko irailaren 25ean egindako eskaeraren berri eman du. Bertan, José Irigaray Gilek tutoretzapeko karrera-amaierako lanetarako bizilagunen datu pertsonalak eta baratzeen titulartasuna nork eman zituen jakiteko eskatu du.

Udalbatzak aho batez erabaki du xxxxxxxxi jakinaraztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek egindako karrera-amaierako lan horiek María González de Audicana Amenábar irakasleak zuzendu zituela eta José Irigaray Gil izan zela tutore. Beraz, erakunde horretara jo behar du informazio hori lortzeko



9. XXXXXXXXXXXXXREN 2025EKO IRAILAREN 30EKO ESKAERARI EMANDAKO ERANTZUNA, HARRESI-ESPARRUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA (5. ETA 6. HORMAK)

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza eta xxxxxxxn 2025eko irailaren 30eko instantziaren berri eman du. Instantzia horretan eskatu du jakiteko zergatik ez den egin azterketa geoteknikoaren 6. horma (Ordoki baratzea), Baratzeen Plan Berezia izeneko lanean eta Plan Berezian (BICren araudia) agertzen den berreskuratze-aurreproiektuaren arabera 5. hormari (Zurginenea baratzea) dagokionez, galdetu du ea zergatik aurreikusten den hura egitea. Udalbatzak erabaki du aho batez xxxxxxxxi jakinaraztea 6. hormari (Ordoki baratzea) dagokionez, behin betiko proiektuan jarduketa aurreikusita dagoela, baita 5. hormari (Zurginenea baratzea) dagokionez ere.

10. XXXXXXXXXXXXXREN 2025EKO IRAILAREN 30EKO ESKAERAREN ERANTZUNA, HARRESIZ INGURATUTAKO ESPARRUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA (ZOLADURA ETA HORMA ATZERA EMATEA).

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza, eta xxxxxxxren 2025eko irailaren 30eko beste instantzia baten berri eman du. Bertan, 2021eko martxoaren 15eko akta batean oinarrituta, Loigorri eta Loperenako etxeen arteko pasabidearen zoladuraren berrikuntza guztia eta Loperenako baratzeke hormaren atzeraemangunea jasotzen zituen memoria bat aipatzen da, eta bi kasuetan egungo proiektuan jarraitzen diren irizpideei buruzko informazioa eskatzen du, zoladuraren kasuan, ez baita aurreikusten hura gauzatzea. Udalbatzak aho batez erabaki du xxxxxxi jakinaraztea behin betiko proiektuak definitzen dituela egin beharreko jarduerak, eta 2021eko martxoaren 15eko aktan aipatzen den memoriak Donejakue Bideko jarduketetarako deialdi eskusibo batean aurkezteko egin zela, baina ez zuela finantzaketarik lortu.

11. XXXXXXXXXXXXXREN 2025EKO URRIAREN 23KO ESKAERAREN ERANTZUNA, HARRESI-ESPARRUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA (8 ETA 9 HORMAK).


Irigaray Osés alkateak hartu du hitza, eta xxxxxxxxxxxk 2025eko urriaren 23an egindako eskaeraren berri eman du. Bertan, 8. eta 9. hornei buruzko zenbait ohar egin ditu, eta proiektua gauzatzean kontuan hartzeko eskatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez xxxxxxi jakinaraztea proiektua idatzi duenari horren berri emango diola azter dezan.

12. XXXXXXXXXXXXXREN 2025EKO AZAROAREN 9KO ESKAERAREN ERANTZUNA, HARRESI-ESPARRUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA (PROIEKTUARI LOTUTAKO BOST GAIRI BURUZKO INFORMAZIOA).

Irigaray Osés alkateak hartu du hitza, eta xxxxxxxxen 2025eko azaroaren 8ko eskaeraren berri eman du. Bertan, bost gai argitzeko eskatu du:

1. Ordokireneko atzealdea asfaltatzea eskatu du, zoladura aunitz hondaturik dagoelako eta ibilgailuak irrifatzen baitira.



Udalbatzak erabaki du aho batez xxxxxxxxxxxxxri jakinaraztea zolatu beharreko eremuak egungo proiektuan aintzat hartutakoak direla, baina hura proiektua idatzi duen taldeari helarazten zaiola, azter dezan. 2. Ordokiko baratzean eta Donejakue Bidearen goiko aldean higadura saihesteko neurriak aurkeztu ditu, eta kontuan hartzeko eskatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez xxxxxxxxxxxxxri jakinaraztea proiektua idatzi duenari horren berri emango diola azter dezan.

-3. Donejakue Bidearen goiko aldea (Loigorri eta Loperena etxeen arteko pasabidea) zolatzeko eskatu du, 2021ean idatzitako memorian egitea aurreikusten zela argudiatuz. Udalbatzak erabaki du aho batez xxxxxxxxxxxxxri jakinaraztea memoria hura deialdi zehatz baterako prestatu zela eta oraingo proiektua beste baterako dela.

-4. Aitor Pinillos Lanz jaunak 2011n egindako "Auritzeko Defentsa Zaharrak Berreskuratzeko Proposamena" izeneko karrera-amaierako lanean oinarritutako azalpena egin ondoren, gauzatu beharreko proiektuarekin egindako aldaketak azaltzeko eskatu du. Udalbatzak aho batez erabaki du xxxxxxxxxxxxxri jakinaraztea karrera-amaierako lana beharrezko izapidea dela ikasleek unibertsitate-karrera batzuetan titulazioa lor dezaten. Hau da, urrats formatibo eta akademikoa da egiten duenarentzat, baina ez du inoiz arau-izaerarik. Gauzatu beharreko proiektua Javier Beorlegui Apesteguía eta Joseba Baztan Beperet arkitektoek egindakoa da.

-5. Aitor Pinillos Lanz jaunak 2011n egindako "Auritzeko Defentsa Zaharrak Berreskuratzeko Proposamena" izeneko karrera-amaierako lanean oinarrituta, galdetu du ea zergatik ez den jarduten hirigunearen ekialdean Etxexuri etxetik elizarako atzealdeetan. Udalbatzak aho batez erabaki du xxxxxxxxxxxxxri jakinaraztea proiektu hori aurreko korporazioak aurkeztu zuela, eta hark definitu zuela, modu handiagoan, Industria eta Turismo Ministerioan aurkeztutako jarduketa, hark baloratu eta esleitu baitu finantzaketa.


Azkenik, bere idatzian honakoa aipatzen du: "Badirudi egindakoaren zati bat ez datorrela bat arauarekin eta beste zati bat ez dela berreskuratu nahi".

Udalbatzak erabaki du aho batez xxxxxxxxxxxxxri jakinaraztea orain arte egindako obrek Vianako Printzea Kultura Sailaren eta udal hirigintza-aholkularitzaren oniritzia izan dutela. Orain gauzatuko den proiektuak aldeko beharrezko txosten guztiak ditu, eta, gainera, Industria eta Turismo Ministerioaren bermea du, proiektua egiteko hautatu baitu, finantzaketa emanez.

Bere ustez, badirudi ez dela osorik berreskuratu nahi, eta Udalbatzak erantzun dio proiektu honekin ez dela amaitzen berreskuratze-prozesua, baizik eta beste fase bat dela, eta jarraitu egin beharko dela.

13. ANTOX PROGRAMAN SARTZEA ETA ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Irigaray Oses alkateak hartu du hitza, eta drogazalekasuna prebenitzeko Antox programarekin bat egitea proposatu du. Adierazi du eskualdeko toki-erakundeen



konpromiso politikoa bultzatu nahi dela. Konpromiso horrek urtean 300€ inguruko ekarpena egitea dakar, eta gizarte-arazo oso garrantzitsua denez, Udalak bat egin behar duela uste du.

Era berean, tokiko ordezkari gisa, Azanza andrea titular gisa eta Juandeaburre andrea ordezkari gisa izatea proposatu du. Udalbatza ados dago horrekin, eta aho batez onartu da alkatearen proposamena, hartutako erabakia helaraziz.

14. AURIZKO ESKOLAKO ONDARE INMATERIALA BILTZEKO PROIEKTUA.

Irigaray Osés alkateak azaldu du tokiko ikastetxe publikoaren historia jasota geratu behar dela, haren garrantzia kontuan hartuta. Horregatik, Pirinioetako 2026ko Ekintza Planari herriko eskolaren historia eta bizipenak ardatz dituen ondare immateriala biltzeko proiektua aurkeztea proposatzen du. Horretarako, Labrit S.L. enpresarekin harremanetan jartzea proposatu du, memoria bat eta egin beharreko ekintzen planteamendu bat egin ditzan.

Udalbatzako kide guztiak ados daudenez, Labrit S.L.ri tokiko ikastetxe publikoaren historia eta bizipenak jasotzeko planteamendu bat enkargatzea erabaki da. Proiektu hori 2026ko Pirinioetako Ekintza Planeko laguntzen deialdian aurkeztuko da.

15. FRONTOIKO TABERNAKO ALTZARIAK EROSTEA

Irigaray Osés alkateak azaldu du frontoiko tabernarako altzariak erosi behar direla, zaharberitu ondoren jarri ahal izateko. Azaldu du udalkideek hainbat eredu ikusi dituztela lokalaren dimentsioetara ahalik eta gehien egokitzeko, txikia baita. Proposamenak aztertu ondoren, eta kontuan hartuta “La Silla” enpresarena dela abantailatsuen, Udalbatzak aho batez onartu du “La Silla”-k aurkeztutako aurrekontua, 3.668,66 €-koa (BEZA barne). Aurrekontu horrek 110 x 70 cm-ko 6 mahai eta 70 x 70 cm-ko 3 mahai eta 36 aulki ditu eta udal inbentarioan txertatuta geratuko dira

16. BIDAUSI HONDAKINEN MANKOMUNITATEAREN ESKAERA – ZABOR EDUKIONTZIAK JARTZEA.


Irigaray Osés alkateak hitza eman dio Irigaray Gil zinegotziari, bera baita Udalaren ordezkaria Bidausi hondakinen mankomunitatean.

Irigaray Gil zinegotziak dio hondakinen mankomunitateak arropa eta oinetakoak biltzeko hiru edukiontzi erosi dituela eta eskualdean jarriko direla. Aukeratu diren kokapenak dira Garaioa, Erro eta Aurizberri. Azkeneko herri horretan arazoa dago tamaina dela eta, beraz Mankomunitateak proposatu du Auritzen jartzea.

Gaineratu du Mankomunitatea dei egiten ari zaiela tokiko erakundeei edukiontzien puntuak murrizteko aukera azter dezaten. Auritzen kasuan 20 dira, beraz, pixkanaka gaia aztertzen joatea proposatzen du. Orreaga kaleko lanak bukatuta, atzeko frontoiko aparkalekuan Larrañeta kaleko bi puntuetakoak, beheko garbitokikoa eta kultur etxekoa jartzea proposatu du. Modu berean, guardia zibilaren kuartelaren ingurukoak bateratzeko aukera aztertzea proposatu du.

Azanza zinegotziak Maiorategia karrikakoak ere berrantolatzea proposatu du, inguru horretan zabor anitz baitago.

Udalbatzak erabaki du aho batez:



1.- Bidausi Mankomunitateari baimena ematea atzealdeko frontoiko aparkalekuan arropa eta oinetakoentzako edukiontzia jartzeko.

2.- Leku horretan hondakinentzako edukiontziak jartzea eta Larrañeta karrikako, beheitiko garbitokiko eta kultur etxeako edukiontziak hara eramatea.


3.- Mankomunitatearekin batera kuarteleko eremuko edukiontziak bateratzea.

4.- Harresien berreskuratze proiektua egin ondoren, Maiorlategi karrikako edukiontzien kokapena aztertzea.

17. SABAIA ERABILTZEKO BALDINTZAK ONARTZEA

Irigaray Osés alkateak azaldu du udaletxeko pisuetako maizterrek proposatu diotela eraikineko sabaia trasteleku gisa erabili ahal izatea. Hartara, udalbatzak leku hori erabiltzeko arautegia aztertu du eta onartzea proposatu du. Hona hemen:

1. Sabaia 5 zatitan banatuko da, honela:
 - a. Udala
 - b. Bigarren eskuin
 - c. Bigarren ezker
 - d. Hirugarren eskuin
 - e. Hirugarren ezker
2. Debekaturik dago itxiturak jartzea, zati horiek beti irekiak izanen dira.
3. Udalaren sabaia erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie Nasuvinsak kudeatzen dituen eta udaletxearen eraikinean dauden etxebizitzetako maizterrei eta Aurizko Udalari
4. Gune hori hainbat gauzatarako erabiliko da, hala nola, etxeako elementuen biltegiarako (altzariak, aulkiak, bizikletak, armairuak, erremintak eta abar).
5. Ez da inola ere onartuko jakiak gordetzea.
6. Debekatuta dago gune horietan indar elektrikoko puntuak ezartzea, bai eta indar hori erabiltzea ere
7. Gune horiek ezin dira tailer gisa erabili.
8. Udalak ez du bere gain hartuko gunearen kudeaketa, baizik eta espazio horietako maizterren ardura izango da erabilera egoki eta ordenatua egitea.
9. Debekaturik dago veluxak irekitzea, beti hertsitik egon behar dute.
10. Udalak ez du bere gain hartzen gune horretan gerta litezkeen ebasketen edo lapurreten gaineko erantzukizunik, gune irekia baita.
11. Maizterren erantzukizuna izanen da instalazioen garbiketa eta mantentze lanak egitea.
12. 14. Udalak beretzat gordetzen du eremu hori osorik erabiltzeko eskubidea, hala eskatzen duten beharrak sortzen direnean.
13. Egokitzat jotzen denean, espazioa ikuskatuko da aldian behin, ondo erabiltzen dela egiaztatzeko



14. Instalazioa gaizki erabiliz gero, itxi egingo da eta erabiltzailea kanporatuko da

Udalbatzak aho batez erabaki du sabaia zein biltegitzeko gunea erabiltzeko arauak onartzea. Halaber, aldez aurretik lurzoruari inprimazio bat ematea erabaki da, hura errazago garbitzeko.

18. AMAVIR ZAHARRETXEAREN BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO ERABAKIA

Irigaray Osas alkateak Azanza zinegotziari eman dio hitza, egoitzako Kontseiluan ordezkaria baita. Honek erresidentziaren problematika azaltzen du eta zahar-egoitzaren egoera, bideragarritasuna eta konponbide posibleen inguruan Geroconi eskatutako txostena azaldu du. Orain arte, ASISTENCIAL IBAÑETA SA sozietatea da Erroibarren dagoen 50 plazako egoitzaren jabe eta kudeatzailea. Bere akziodunak Nafarroako 16 udalerrri eta PLANIGER merkataritza-sozietatea dira, Amma Asistentzialak, Nafarroako Kutxako sozietate kudeatzailea izandakoak, bereganatu zuena. Lankidetzaren publiko-pribatuko eredu hori ez da batere ohikoa, eta finantza-erakundearen kudeatzaileak inbertsio ia osoa hartu zuen bere gain hura sortzeko. Egungo akziodun eta kudeatzaileak sozietatetik ateratzea planteatu du urteotan sortu diren galerengatik, baita zentroan lan egin nahi duten langileak aurkitzeko zailtasunengatik ere. Zailtasun hori areagotu egiten da zonaldean etxebizitza faltagatik eta Nafarroako hitzarmen bati begira sindikatuekin negoziatzen ari diren mailara soldatak igotzea ezinezkoa delako.

Horren aurrean hiru aukera daude:

Zahar-egoitza ixtea oreka ekonomiko-finantzarioa lortzea ezinezkoa baita.


b) Akziodun-kudeatzailearen akzioak saldu eta eginkizun hori hartu nahi duen beste erakunde pribatu bati eskualdatzea.

c) Kudeatzailearen akzioak gainerako akziodunen artean erostea eta banatzea, eta zentroa kudeatzen jarraitzea, zuzenean edo erakunde espezializatu baten bidez.

Egoera honen berri dugunetik, aldeekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean ari gara, egoitzarekin aurrera jarraitzeko eta zerbitzu hori mantentzen jarraitzeko modua bilatzeko. 100.000,00 €-ko diru-laguntza eman da, prozesu horrek guztiak izango duen kostua finantzatzeko, besteak beste.

Udal akziodunak adierazten ari dira egoitzaren jarduerarekin jarraitu nahi dutela, eta, beraz, PREMIAZKO irtenbide bat bilatzera behartuta daude, gaur egungo enpresa kudeatzailea atera eta hurrengo egunetik aurrera zerbitzua bermatzeko. Aurreikusten da datozen hilabeteetan gertatuko dela hori. Akziodunen profila eta denboraren premia kontuan harturik, irtenbidea izango litzateke erronka bere gain hartuko lukeen pertsona/entitatea bilatzea. Aurrera jarraitzeko erabakia hartuta, eta erakundea aukeratuta, AMAVIRi eskatu beharko litzaioke kudeaketa-lan batzuk bere gain hartzen jarraitzea, intsuldaketa askoz ere ordenatuago bat egin ahal izateko.

Horrez gain, jakinarazi du, egoitzaren kudeaketarekin jarraitu ezean, Plaginer enpresak gaur egun duen zorra bere gain hartu behar dela, baita Nafarroako Gobernuari 300.000 euroko abala itzultzeko betebeharra ere.



Emandako azalpenen ondoren eta gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatza ados egongo litzateke aurrera jarraitzearekin, beti ere, tokiko erakunde guztiek parte hartzen jarraitzen badute eta egoitza finantzatzea ez bada Zerbitzuaren parte diren Tokiko Erakundeentzako zama ekonomikoa eta Udalari kalte ekonomikorik ez badakarzkio.

19. BERDINTASUN ZERBITZUAN SARTZEKO PROPOSAMENA

Irigaray Osés alkateak azaldu du, nahiz eta Udalbatzak aurretik jorratu duen gai bat izan, inguruko berdintasun agentearekin izandako bileraren ondoren, eskaera berri bat dagoela zonaldeko Berdintasun Zerbitzuan sartzeko

Udalkideek gaia eztabaidatu ondoren, honako arrazoiak eman dituzte erabakia hartzeko: Beren ustez, Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudea zezakeen berdintasunerako zerbitzua, erakunde horrek landu behar baitu gaia. Gainera, ez dute argi ikusten etorkizuneko finantzaketaren gaia, kontratatutako teknikaria plantillan sartu beharko litzatekeelako behin betiko, eta dirulaguntza murriztuz doa urtez urte.

Horiek horrela, udalbatzak erabaki du aho batez eskualdeko berdintasun zerbitzuan parte ez hartzea eta Berdintasun Zerbitzuari erabakiaren berri ematea.

20. JOSTA-LEKU FRONTOIAREN EHUNGARREN URTEURRENA

Irigaray Osés alkateak azaldu du 2026an estali gabeko frontoiaren mendeurrena beteko dela, eta uste du efemeride garrantzitsua dela herrirako. Ospakizunerako, urtarrilean bizilagunei irekitako bilera bat egitea proposatu du, ideiak proposatzeko. Bestalde, Nabarralderekin pilota jokoari eta frontoiei buruzko hitzaldi batzuk antolatzeko aukera aztertzea proposatu du, eta iraileko azokaren argitalpena frontoiaren eta bertako pilotarien historiari buruzkoa izatea. Pilota partidak antolatzea ere proposatu du

Jakinarazi du duela ehun urte frontoia inauguratu zenean abestu zen auroraren partitura berreskuratu dela eta musika eskolari helarazi zaiola azter dezan, eta adierazi du asmoa dela herritarrek kantatzea ekitaldiren batean

Udalbatzak erabaki du aho batez alkatearen proposamena onartzea.


21. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENAREKIN BAT EGITEA BERRESTEA

Irigaray Osés alkate jaunak hitza hartu du eta joan den abenduaren 3an ospatutako Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta, manifestua onartzea proposatu du. Hona hemen:

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, udal honek adierazi nahi du bat egiten duela ospakizunarekin. Izan ere, euskara da gure herriko ezaugarri nabarmen bat. Nolanahi ere, hizkuntza gutxitua den aldetik, erakundeon babesa behar du.

Gero eta gehiago dira euskaldunak gurean, baina jabetzen gara lan handia dugula egiteko euskararen normalizazioa egikaritu dadin. Gure eginkizuna da herritarrek euskaraz bizi ahal izateko bideak irekitzea.



Euskara da gure udalerrietako elkarbizitzarako giltzetako bat. Gure betebeharra da euskal hiztunek bereago sentitzea hizkuntza eta euskara urruti dutenei gerturatzea; halaber, bertako euskaldunen kopurua handitzen laguntzea, bai hezkuntza arautuaren bitartez baita euskaltegien bitartez ere.

Dagokigun ardurarengatik, udal honek bere prestutasuna agertu nahi du euskararen zabalkundean lan egiteko eta xede bera duten beste erakunde zein entitateekin elkarlanean aritzeko. Denon eginahala da beharrezkoa lanbide honetan.

Maiz esaten da euskara altxorra dela, baina ez da museo batean edukitzekoa. Altxorra da euskara ederra den aldetik, erabilgarria eta aberasgarria. Horregatik, gaurko egunean, Kirmen Uribe idazlearen pasarte bat ekarri nahi dugu gogora:

Emakume hark [Phylis Levin] esan zidan bazuela euskararen berri aurretik ere, ezagutzen zituela euskaraz idatzitako testuak. (...) Harri eta zur geratu zen testuan agertzen ziren x guztiekin. Altxorraren mapa ematen du zuen hizkuntzak, esan zidan, gainontzeko letra guztiak ahaztu eta x letran soilik arreta jartzen baduzu altxorra non dagoen jakin dezakezula ematen du. Ezagutzen ez duzun hizkuntza bati buruz esan zitekeen gauzarik politena zela hura bururatu zitzaidan, altxor baten mapa dela.

Udalbatzak erabaki du aho batez Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpenarekin bat egitea eta eskualdeko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea.

Gai zerrendatik kanpo, Martinez zinegotziak proposatu du Irati-Orreaga turismo Elkartearekin dagoen Hitzarmenari buruzko gaia premiaz sartzea. Guztiak ados egonik, aho batez erabaki da gaiaz hitz egitea, bai eta Irati-Orreaga Elkartearekin sinatutako hitzarmena urte betez berritzea. Hitzarmen hori urtero berrituko da, baldin eta Udala ados baldin badago.

22.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA

Irigaray Osés alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:


Donejakue Bideko memoria

Ingenieria Eunatek egindako memoria bat aurkeztu da, 224.208 eurokoa, ACD Camino de Santiago deialdira. Memoriak Donejakue Bidea herritik pasatzen den hiru zatien hobekuntza biltzen du eta eskaera deialditik kanpo gelditu zen, Duela gutxi, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak deialdi bat argitaratu du, eta, deialdi horretan, proiektua sar liteke. Beraz, aurkezteko aukera baloratuko da, proiektu hori egin ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Aurrekontuen emendakina

EH Bildu legebiltzarreko taldeak 130.000 euroko partida bat sartu du 2026ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, Aurizko Udalaren Hitzarmen izenburupean, antzinako eskolen eta maisu-maistren udal-eraikinaren estalkia konpontzeko. Beste talde batek ere ez du diru-partida hori babestu; beraz, 37.000 euro bilatu beharko dira beharrezko obra hori finantzatzeko. Parlamentuko tramitazioan, UPNk eta VOXek zuzenketaren kontra bozkatu



zuten, PPN abstenitu egin zen eta Geroa Baik, PSNk eta Contigo Zurekin taldeak alde egin zuten. Bereziki eskerrak eman nahi dizkiot EH Bildu legebiltzar-taldeari zuzenketa hau finantzatzeko, eta, bereziki, Mikel Zabaleta legebiltzarkideari, Pirinioetako Planaren jarraipenerako legebiltzar-batzordearen lehendakaria, jarduera honen premiazko beharra ulertu duelako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Konkorrak

Orreaga karrikako lanak aurrera eramateko ardura duen ERKI enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, San Nikolas Kalean abiadura murrizteko konkorrak jartzeko lanak egiteko Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahaia

Azken hilabeteetan, Nafarroako 2026ko aurrekontu orokorren inguruan lan egin da, eta Pirinioetarako partida hauek nabarmendu behar dira:

- Lehenengo sektorea sustatzea
 - 400.000 euro hiltzeirako
 - 100.000 euro Larretik
- Zaintzak
 - 100.000 euro amavir
- Etxebizitza
 - Lan eta Bizi ekimena sustatzea urtero 100.000 euro emanda, guztira 300.000 euro
 - 3M etxebizitza hitzarmenak + 600.000 euro, EhBilduren emendakina.
- 106.000 euro ikasleen garraiorako, biztanleak finkatzeko helburuarekin.
- 100.000 euro Toki Entitateen planetik kanpoko jarduerentzako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

“Ahaztearen aurka, memoria gehiago” argitalpenaren aurkezpena

Urriaren 9an aurkeztu zen udaletxean Ahaztearen aurka, memoria gehiago argitalpena, 1936ko kolpearen eta ondorengo diktadura frankistaren biktima ahanzturatik eta desmemoriatik berreskuratzeko. Hortaz gain, 1036ko biktimen oroimenezko monumentuan plaka bat jarri da, biktima erreparatzeko. Halaber, argitalpenaren ale bat Valencia del Ventosoko Udalari igorriko zaio, biktima hangoa baitzen, Udal hartan gurean egindako lana izan dezaten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Harresiak


Turismoko Estatu Idazkaritzak dagoeneko sinatu du laguntzaren ebazpena eta duela 3 aste bildu nintzen Eder Martínez eta Joxepe Irigaray zinegotziekin eta idazkariarekin, Javier Beorlegui arkitekto eta obraren zuzendariarekin eta Construcciones Leache esleipendunarekin, obraren hasierak planteatzeko. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

San Nikolas festa

Abenduaren 5ean eta 6an San Nikolasen ohoreko festa txikiak ospatu zirela herrian eta irten ere giro ona eta partehartzea izan dira nagusi. Ospakizunak ahalbidetu dituzten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Herri lanak



Aurizko
Udala
Ayuntamiento de
Auritz/Burguete

Azaroan egitekoak diren lanak, Orreaga karrikakoak eta frontoiko tabernakoak, aurrera doaz. Orreaga karrikari dagokionez, obra amaitzeko fresaketa eta zoladura falta dira. Frontoiko tabernan zurgintza lanak falta da eta pladurra bukatzea, beraz, dena behar bezala badoa, Gabonetarako taberna irekita egongo da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirineaus III.

Joan den abenduaren 2an bilera bat egin zen Pirineaus III proiektuaren esparruan. Luzaide, Donazaharre, Artzibar eta Aurizko udalek parte hartu zuten bileran, eta esparru horretan egingo diren jarduerak aztertu ziren; besteak beste, 2026ko udaberrian liburu bat argitaratuko da Erromako galtzadari eta Zalduako aztarnategiari buruz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

23.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:10ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.